

Irakurri arreta handiz hurrengo testua eta gero ebatzi ondoren ematen diren problemak.

## **Unibertsitateaz kanpoko ikasle kopurua mantendu egin da haur eta lehen hezkuntzako matrikulei esker**

### ***Ikastetxe publikoetan izan zen haur eta lehen hezkuntzako matrikula kopuruaren gehikuntzarik handiena***

Eustaten datuen arabera, 2007/08 ikasturtean guztira 373.570 ikasle ikasi zuten Euskal AEn unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren batean, aurreko ikasturtean baino % 0,2 gehiagok. Horietako 348.526 ikasle araubide orokorreko ikasketak egin zituzten; kasu horretan 7.091 matrikula berri izan ziren (saldo positiboa), % 2 gehiago.

Irakaskuntza mailaren arabera bilakaera ezberdinak izan ziren. Haur eta lehen hezkuntzan 88.308 eta 107.329 ikasle izan dira, hurrenez hurren; hau da, aurreko ikasturtearen aldean ikasle kopurua nabarmen gehitu da: haur hezkuntzan gehikuntza % 4,1ekoa izan da eta lehen hezkuntzan % 3,3. Horrela, azken urteetako joera jarraitu da. Helduen hezkuntzan ere gehitu da matrikula kopurua; zehazki, % 6,8. Guztira 28.684 inskripzio izan dira. Hezkuntza Berezian 983 ikasle eman dute izena, % 1,5 gehiagok.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) antzeko ikasle kopurua mantendu zen: 68.881. Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, aldiz, ikasle kopurua murriztu egin da: % 3,1 eta % 2,8, hurrenez hurren. Murrizpen horren arrazoi nagusia biztanle kopuruaren gutxitzeak eragin du, azken urteotan aipatutako irakaskuntzako adin-tarteetan biztanle kopurua gutxitu egin delako.

1/ Euskal AEn guztira 2.100.000 biztanle badaude, kalkula ezazu 2007/8 ikasturtean unibertsitateaz kanpoko zenbat ikasle izan ziren (ehunekoa eman).

2/ Orain kalkulatu 2006/7 ikasturtean haur hezkuntzan izan zen ikasle kopurua.

3/ Azkenik, kalkulatu 2006/7 ikasturtean helduen hezkuntzan izan zen ikasle kopurua.

Irakurri arreta handiz hurrengo testua eta gero ebatzi ondoren ematen diren problemak.

## **EAEko neska-mutilek ia oso ongi bat atera dute 2008an unibertsitatera sartzeko probetan**

### ***Aurkeztutakoen % 55ek euskaraz egin du proba***

Eustaten datuen arabera, 9.163 gazte matrikulatu dira 2008. urtean Euskal AEko unibertsitatera sartzeko probetara aurkezteko. Horien 8.588k gainditu du proba, hau da, ..... ak; gainditutakoen batez besteko nota 6,7 izan da, ia oso ongia. Halaber, aurkeztutakoen % 55ek euskaraz egin zuen proba.

Ekaineko deialdian 7.557 ikasle matrikulatu ziren eta % 97k gainditu zuen; uztaileko deialdian, aldiz, 1.632 ikasle matrikulatu ziren eta % 78k gainditu zuen.

Gainerako autonomia-erkidegoetako emaitzekin alderatuta, Euskal AEk gaindituen hirugarren ehuneko altuena izan du: % 94. Oso hurbil geratzen dira, beraz, Valentziako Erkidegoa eta Extremadura, biak % 95ekin, eta Estatuko batezbestekoaren aldean zortzi puntu gorago.

1/ Testuan gaindutakoen ehunekoa ezabatu dugu. Zeuk kalkulatu.

2/ Orain kalkulatu proba euskaraz egin zuen ikasle kopurua.

3/ Azkenik, kalkulatu ekaineko eta uztaileko bi deialdien artean gainditu zuen ikasle kopuruaren ehunekoa.